# Informazioaren teknologiei egokituriko aurrekontua

GIPUZKOAKO Bazkundeak 6,7 milioi eurotik gorako aurrekontua aurkeztu du 2003. urterako, ibilbide ondo sendotu baten adierazpen egokia den datua. Kopuru horren atzean inbertsio ahalegin guztiz serio bat dago: izan ere, %5 gehitzen baita aurrekontua bukatu berria den urtekoari buruz, nahiz eta, aurrez ikusitakoaren arabera, gure inguruko merkatua ez den ehuneko horretan haziko. Bazkundeari bidezkoa iruditu zaio une honetan aurrekontu hori bideratzea, gure Lurralde Historikoko enpresa jardueraren zenbait alderdi babesteko eta gidatzeko tradizioz egin ohi duen erronkaren erakusgarri gisa, konkurrentziazko postuetara iritsi ahal izateko arreta handia behar duten alderdiak hain zuzen ere.

2003. urterako jarduera berriztatzaileek leku berezia hartzen dute aurrekontuan. Jarduera horietan nagusiak dira Enpresen Babes Sare baten ezarpena, informazioaren teknologien garapena, lan metodoen berrikuntza eta Entertain europar egitasmoa, zeinaren helburua mikroenpresen berrikuntza ahalmena hobetzea baita.

Aurten, baliabide iraunkorrei –alegia, enpresek ordaintzen dituzten kuotetatik datozenei– aurrekontuan eskaini zaien gehikuntza, baliabide ez iraunkorrei eskaini zaiena baino txikiagoa da, edo, beste era batera esanda, Bazkundeak egindako zerbitzuen eta produktuen fakturaziotik datozen haiena baino txikiagoa da. Argi adierazten du horrek zerbitzu horiek errentabilizatzeko eta enpresek legez ordaintzen dituzten kuotei buruzko mendekotasuna murrizteko Bazkundeak duen borondatea. Aurrekontuan %50-%50ekoa da baliabide iraunkorren eta ez iraunkorren arteko harremana.

Bazkundeak enpresari eskaintzen dion gastuaren %75ak, hau da, bost milioi euro inguruk, oso argi adierazten dute kalitatezko zerbitzuak eta balio erantsi handia dutenak eskaini nahi dizkiela Bazkundeak enpresei. Zentzu horretan, aurrekontuaren ehuneko handi bat –%33ra iristen da–, langileei dagokie; horretan ere islatzen da produktibitatearen gehitzea, eta kostu egitura osasuntsua.

Aurrekontuak arreta berezia jarri du internazionalizazioan eta prestakuntzan. Nahiz eta legearen arabera Sozietate Zergen kuotatik datozen kuoten errendimenduaren bi heren Internazionalizaziora eskaini behar zaizkion, eta gainerako herena prestakuntzara, Gipuzkoako Bazkundeak berariaz gainditzen du legearen muga hori. Izan ere, bata zein bestea guztiz premiazkotzat jotzen baititu gure ekonomiaren ibilbide egokirako, eta, batez ere, enpresa jarduerarako.

Asko dira oraintxe hasten den urte honetarako aurrekontu honek kontuan hartzen dituen proiektuak, baina horietako zenbaitek garrantzi berezia hartzen dute, berritzaileak eta handinahiak direlako. Horietako bat Enpresen Laguntzarako Sarea da, zeinaren oinarriak 2003. urtean zehar jarriko baitira, epe erdira garatzeko gero. Informazioen teknologia izen orokorraren pean, proiektu honetan egin ohi dituen aktibitate kopuru handi bat biltzen du Bazkundeak, enpresa esportatzaileei dagokiena, hasi prestakuntza lanetatik eta merkatu, aholkularitza edota eragiketa elektronikoen segurtasunarenazterketetaraino. Mundu osoan banaturiko zazpi garapen ardatzeko sare bat sortzea da helburua, presentzia fisikoaren eta informazioaren teknologien bitartez emandako babes eta internazionalizazio zerbitzuak konbinatuko dituena.



Gipuzkoako Bazkundeak, aurrekontu honen bidez, enpresa ehunari eskainitako zerbitzuak, kuantitatiboak nahiz kualitatiboak, gehitzeko konpromisoa berriztatzen du, haren premia konkretuei egokituz eta euskarri gisa tresna teknologikoak erabiliz, horien bidez enpresa gehiagotara irits baikintezke, eremu geografiko zabalagoan eta hornidura kostuak merkeagoatuz.

**Edita:** Cámara de Comercio, Industria y Navegación de Gipuzkoa
Pº Ramón Mª Lilí, 6 20.002 - San Sebastián

**Diseño, ilustración, infografía y maquetación:** F.J. BIENZOBAS, Servicios Infográficos • 943 454 899

# Un presupuesto adaptado a las tecnologías de la información

**LA CÁMARA** de Gipuzkoa ha presentado un presupuesto para 2003 que asciende a 6,7 millones de euros, lo que es fiel reflejo de una trayectoria ya consolidada. Tras esta cifra se encuentra un fuerte esfuerzo inversor, dado que se incrementan un 5% respecto al del año recién finalizado aunque, según las previsiones económicas, el mercado de nuestro entorno no crecerá este porcentaje. La Cámara ha considerado oportuno realizar ahora este presupuesto como muestra de su tradicional apuesta por apoyar y liderar aspectos de la actividad empresarial de nuestro Territorio Histórico, que requieren una gran dedicación para situarla en puestos competitivos.

Un apartado preferente tienen las acciones innovadoras para el año 2003. Las principales son la implantación de una Red de Apoyo Empresarial, el desarrollo de las tecnologías de la información, la innovación en los métodos de trabajo y el proyecto europeo Entertain, que persigue mejorar la capacidad de innovación en las microempresas.



Este año, el incremento presupuestado de los recursos permanentes – aquellos procedentes de las cuotas que pagan las empresas - es inferior al de los recursos no permanentes, o lo que es lo mismo, de aquellos que proceden de la facturación por servicios y productos desarrollados en la Cámara. Este hecho significa una clara voluntad de rentabilizar estos servicios, y reducir la dependencia de las cuotas que pagan las empresas por ley. El presupuesto presenta una relación del 50%-50% entre recursos permanentes y no permanentes.

Un ejemplo que demuestra el interés por ofrecer servicios de calidad y con un alto valor añadido a las empresas es el 75% del gasto, alrededor de cinco millones de euros, que asigna la Cámara a la empresa. En este sentido, también un porcentaje alto del presupuesto, que asciende al 33%, tiene como destino el personal, lo que refleja un incremento de la productividad y una estructura de costes sana.

El presupuesto presta especial atención a internacionalización y formación. Si bien la ley exige destinar las dos terceras partes del rendimiento de las cuotas procedentes de la cuota del Impuesto de Sociedades a Internacionalización y la tercera parte restante a Formación, la Cámara de Gipuzkoa supera el límite legal voluntariamente, ya que las considera imprescindibles para la buena marcha de nuestra economía, y en especial de la actividad empresarial.

Son muchos los proyectos que contempla este presupuesto para el año que ahora comienza, pero algunos de ellos cobran especial importancia por su carácter innovador y ambicioso. Uno de los que destaca es la Red de Apoyo Empresarial, cuyas bases se asentarán a lo largo de 2003, para desarrollarlo a medio plazo. Bajo el denominador común de las tecnologías de la información, la Cámara reúne en este proyecto un buen número de las actividades que realiza y que afectan a las empresas exportadoras, desde las acciones de formación hasta estudios de mercado, asesoría o seguridad en las transacciones electrónicas. Se trata de crear una red con siete polos de desarrollo repartidos por todo el mundo, y que combinará la presencia física con los servicios de apoyo e internacionalización prestados mediante las tecnologías de la información.

La Cámara de Gipuzkoa renueva, con este presupuesto, su compromiso por incrementar cuantitativa y cualitativamente sus necesidades concretas y utilizando como soporte las herramientas tecnológicas, que permiten llegar a más empresas, en un ámbito geográfico más amplio, y con un abaratamiento de costes en el suministro.